

Basoaren arriskuak



Egilea: admin



Basoko hegaztiak goizean goiz elkartu ziren.
Guztien artean zer egin erabaki behar zuten.

Azken aldian,Â basoan barrena, bazebilen hegaztiak
mehatxatzen zuen beste animalia bat: sugea!

- Gu errespetatzeko eskatu behar diogu sugeari! -
esan zuten ahots batez txori txikiek - Ezin gara inora
joan sugea gose dela jakinda! - gehitu zuten.
- Baina, nor joango da Sugearekin hitz egitera? -
galdetu zuten besteek.



Saguzarrei galdetu zieten baina hauek, ezetz esan
zuten.

Egunaren argiak min ematen ziela eta lagundu nahi
bazuten ere, gauez bakarrik joan ahal zirela.
Saguzarrak eguzkia sartzen denean ateratzen direla
euren kobazuloetatik eta orduan, sugea, lo egiten
duela.



Pinpilinpauxari ere batzarrean zegoen.

- Sugearekin hitz egitera joan zaitezke? - galdetu zion hontzak tximeletari.
- Txikiegia naiz eta denbora luze beharko nuke sugea topatzeko.



Beste hontz batzuk ere batzarrean ziren eta beraiei ere galdetu zieten. Ikusita familiako hiru kide zirela, hirurak taldean, sugearengana joateko aproposak zirela pentsatu zuten.

Hasieran pixka bat beldurtuta hartu zuten erabakia baina taldearen onurako izango zela pentsatu zuten eta bidaiari ekin zioten.



Pare bat ordu ibili ziren basoa zeharkatzen...



... sugearakin topo egin zuten arte!

Harri koxkor baten gainean jarrita, taldeko
bozeramailea hasi zen:

- Egun on!Â Hegaztien ordezkari moduan nator
zurekin hitz egitera, suge.

- eta, zer berri? - erantzun zuen sugeak.

- Hegaztiok arduratuta gaude ezin garelako basotik
ibili zurekin topo egingo dugularen beldur. Badakigu
jan behar duzula baina, tira! basoa animaliak ez
diren beste jakiaz beterik dago.Â Gure bidea libre
uztea eskatu nahi dizugu!

- Ondo da, fruta gozoak eta bestelakoak topatuko
ditut basoan. Eskerrik asko abisatzeagatik, ez nuen
zuek beldurtzerik nahi. Bizilagunak izan behar gara,
baso handi honetan. Hurrengora arte!



Eta horrela, hontzek, lasaitasuna eraman zuten
hegaztien erreinura.



www.basomagikoa.com

